



LITERAKTUM

Hitzen hiria

INDARTSU DATOR LITERAKTUM-EKO BIGARREN ASTEA

Literaktum jaialdiak egin du jada bidearen erdia eta gaur ekingo dio jardueraz betetako bigarren asteari. Izen handiak, gaurkotasuneko eztabaidak, afaria eta ibilbide literarioa izango dira, besteak beste. Haurrentzako jarduerak ere ez dira faltako.

Jarduera horien artean nabarmendu nahi dugu gaur eta bihar, **azaroak 19 eta 20**, belaunaldi berrien literaturaren inguruan egingo diren bi mahai-inguruak. Estibaliz Martínez eta Peru Iparragirre idazle gazteak **Zergatik idazleak?** gaia hizpide hartuta ariko dira Samara Velte kazetariarekin solasean. San Jeronimo aretoan izango da, **19:30etik aurrera**. Bihar, berriz, **Gazteak eta irakurketa** gai interesgarria izango dute mintzagai Maialen Berasategi kazetariak, Imanol Epelde irakasle eta blogariak eta Larraitz Idarreta liburuzainak. Gazteak irakurketara hurbiltzen diren, nola erakar daitezkeen eta beste hainbat gai landuko dituzte **Uxue Alberdi** idazlearen gidaritzapean. Mahai-ingurua San Jeronimo aretoan egingo da ere, **19:30ean** hasita.

Hauek dira bigarren astean egingo diren jarduerak:

Azaroak 20

La vida duele IV – El silencio de los crujidos. Tríptico de la soledad

Jon Bilbao & Pilar Adón

Troa Zubieta liburu-denda – 19:30 Gaztelaniaz

Literaktum Wikilantegia

Haur Liburutegia – 17:30

Azaroak 21

La vida duele V – *Asuntos de familia*

Manuel Vilas & Juan José Millás

Tabakalera – Kutxa Kultur plaza – 19:30 Gaztelaniaz

Azaroak 22

La vida duele VII

La favorita de... Edurne Portela – *La cinta blanca*

Tabakalera – zinema aretoa – 20:00 Jatorrizko bertsioan, azpigitularrekin

Minak bizi VI

Han ez banengo bezala

Slavenka Drakulic

Kaxilda liburu-denda – 18:00 Euskaraz / ingelesez

Literaktum-ek aurkezten du II

Harkaitz Cano – *Fakirraren ahotsa*

Lugaritz Kultur Etxea – 19:30 Euskaraz

Azaroak 23

Debates II

La escritura vigilada: literatura e historia en Europa

Slavenka Drakulic & Luisa Etxenike

Koldo Mitxelena Kulturunea – 19:00 Ingelesez, aldi bereko itzulpenarekin

Clásicos III

Cenar con Anna Karenina

Slawka Grabowska

Convent Garden - Solasaldia: 19:30 / Afaria: 21:00 Gaztelaniaz

Azaroak 24

Klasikoak IV

Pio Baroja Donostiara bisitan

Ibilbide literarioa

Okendo plaza – 11:00 Euskaraz

Izen-ematea: liburutegiaalderdieder@donostia.eus

Literaktum presenta III

Como si todo hubiera pasado

Iban Zaldúa & Ramon Saizarbitoria

Troa Zubieta liburu-denda – 18:30 Gaztelaniaz

Emanaldia

Martuteneko kartzelan

Bernardo Atxaga & Jose Kruz Gurrutxaga

Loiola Kultur Etxea – 20:00 Euskaraz

LITERAKTUM TXIKIA

Azaroak 20

Galtzagorriak antzerkia

Aiete Kultur Etxea – 17:00 Euskaraz

Azaroak 21

Aita Manuelen ipuinak

Ipuin kontaketa eta ilustrazio tailerra

Okendo Kultur Etxea (Haurtxokoa) – 18:00 Euskaraz

Azaroak 24

Paddington 2 filmaren emanaldia

Aiete Kultur Etxea – 17:00 Euskaraz

Informazio gehiago: www.literaktum.eus